



Gai batetik besterako saltoen joko bat

GUILLERMO ROA ZUBIA
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Liburu hau gai askotan zeharreko bidaia gidatua da. Lehen orria azido sulfurikoari buruzko artikulua baten hasiera da, eta, azken orria, Louis Pasteurri buruzko artikulua baten bukaera. Eta, tarteko orrietan, beste artikulua asko sartzen dira, nolabaiteko hari bati jarraituta.

Azido sulfurikoa Geber Erdi Aroko zientzialariek lotzen du (Abu Musa Jabir ibn Hayyan da haren jatorrizko izena). Geber, alkimisten “filosofoen harriarekin”. Filosofoen harria, Paracelsorekin. Eta horrela, gai batetik bestera salto eginez, artikuluen segida bat osatu du Pedro Gomez-Estebanek, liburuaren egileak, Louis Pasteurri buruzko artikuluekin bukatu arte.

Modu horretan, kimika, historia, fisika, medikuntza eta beste esparru asko ekartzen ditu 200 orrialde baino gehiagoko testu honetara.

Hitzaurrean aitortzen duenez, gaiak lotzeko modu hori BBCko *Connections* telesaila ikusita bururatu zitzaion. Telesail hartan, James Burke aurkezleak aurkikuntza asko erakusten zituen, bakoitzari denbora gutxi esleituta (Gomez-Estebanek esanetan, aspertzeko adinako denbora-tartera iritsi gabe), eta gai ezberdinen arteko loturak nabarmentzen zituen. Hain zuzen ere, hori zen *Connections*en tesia; ikuspuntu historikotik gauza guztiak daudela elkarri lotuta.

i
**Hablando de...
Del ácido sulfúrico
a Louis Pasteur**

Pedro Gómez-Esteban

Ed.: Lulu.com

217 x 140 mm

Artikuluak, berez, ez ditu liburu osatzeko idatzi Gomez-Estebanek. Bere zientzia-dibulgaziozko blogaren sarrerak dira. Urtetan idatzitako zenbait artikuluen bilduma bat da. El Tamiz izena du blogak (<http://www.eltamiz.com/>), eta artikulua hauek biltzen dituen atalak liburuaren izenburu bera du, *Hablando de...*

Egileak jarraitzen du artikuluen segidarako idazten, baina liburu-formatuan lehen hogeia bakarrik argitaratu ditu. Atala ez da bukatu. Gaiak ez dira agortu. Hain zuzen ere, azken artikulua azken esaldia hauxe da: “Baina zeta aipatu dugula... (hurrengo liburuan jarraituko du)”. Beraz, hurrengo bildumaren lehen artikulua zetari buruzkoa izango da.

Liburuak ez du argitaletxeen ohiko bidea egin. Soilik Internetez eros daiteke, Lulu denda digitaletan (<http://www.lulu.com/>).

Egilea, Pedro Gomez-Esteban, fisikaria eta irakaslea da, eta dibulgazioaren ikuspuntutik bi ezaugarri nagusi ditu: gaiak oso ondo ulertzen ditu, eta ulertutakoa oso ondo azaltzen du. Izan ere, El Tamiz blogaren filosofia Gomez-Estebanek askotan erabiltzen duen esaldi honetan dago laburbilduta: “Ulertezina baino, sinplista izatea nahiago”. *Hablando de...* liburuak aukera ona ematen du artikuluetan filosofia horri hel-tzen diola baieztatzeko. ●